


Oreka IT

Euskara arloan praktika onak



*euskara
langai*


oreka i.t.
corporate balance

Zer egin dugun?

eureka

1. **Erreparatu:** Euskara gure inguruan dugun aktibo natural bat da.
2. **Ulertu:** Honen kudeaketa egoki batekin, gure langileen asebetetze maila eta enpresaren lehiakortasuna hobetzen dira.
3. **Antolatu:** Gure enpresan euskararen normalizazioan eragiteko lan-talde bat sortu: **Eureka**. Honen lan ildo nagusiak hauek direlarik:
 - Neurtu – Zer nahi dute gure langileek eta zein da gure gaitasuna
 - Eragin – Gure zerbitzuan zein aisialdian.
 - Lagundu – euskararen txertaketan, itzulpenetan, dinamizazioan...
 - Bilatu – Arnasguneak aukeratu
 - Jardun – Elkar lana komunitatearekin: Korrika, Euskaraldia...

Euskara-maila



Zailtasunak?

Aldez aurretik pentsatu litekeena baina askoz ere zailtasun gutxiago topatu ditugu orain arte egindako bidean, izan ere, euskararekin erlazionatutako oztopo gehienak, hamarkada batzuk atzeragotik datozen aurreiritzietan oinarritzen dira.

Hala ere, pare bat aipatzekotan:

- **Erabilera** ezagupenarekin bat egitea zaila egiten zaigu.
- **Aurreiritzien kudeaketa** bat egin behar da, onerako zein txarrerako, komunikazioak ahalegina eskatzen du.



Sortu zaizkigun aukerak



Gure enpresa modeloaren oinarrietako bat da euskararen tratamendua, **gertuagokoak, fidagarriagoak bihurtzen gaitu**, eta hori, barnera zein kanpora begira oso garrantzitsua da. Adibidez:

- Gure sektorean **talentuaren erakarpena eta fidelizazioa** arazo nabarmena da, aholkularitza informatikoan lan egiten dugun enpresen batz besteko errotazio tasa %24 inguruko da. Oreka IT-n tasa hau %10 inguruan kokatzen da.
- Bezero batzuetan, euskaraz zerbitzua emateko gaitasuna, **salmenta argudio potentea** izan da. Inon ez dugu nabaritu euskaraz zerbitzua eskaintzeak kalte egin digunik.
- Gure markari **ikusgarritasuna** emateko ibiligailu bat izan da, gaur bezalako ekitaldi bezalakoetan adibidez.

Zailtasunei nola egin diegun aurre?

Erabilerari dagokionez:

Euskaraz jardun nahi duen jendearentzako, lantokian euskaraz aritzeko **aukerak topatzen** eta **aisialdi aukerak eskaintzen**.

Aurreiritziei dagokionez:

Komunikazioan ahalegintzen, euskara inoren aurka ez doala erakusten, baizik era guztion mesederako dela.

Azken batean, normaltasunetik jarduten

Eta hau ere ez al da arraroa, euskararik gabe, Nafarroa?



Aurrera begira zer?



eureka

Euskarak, Oreka IT-ko egunerokotasunean beteko duen lekua kudeatzen jarraituko dugu, Gaztelania zein Ingeleserarekin egingo dugun moduan.

Gure erronka nagusiak hauek izango direlarik:

- **Erabilera areagotu**, ezagupenak ematen digun langara hurbiltzen saiatzen.
- Erabiltzen dugun **teknologia produktuetan** euskararen presentzia handitzeko bultzatu. Hemen gure Administrazioen lidergoa behar beharrezkoa da.
- Enpresaren **internazionalizazio prozesuak** ekarri ahal dituen hizkuntza, oztopo eta aukera berriak kudeatu.

Euskaralangai.eus

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua




euskarabidea